



Arautegia

Krosa 2025

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Atletismo Federazioarekin lankidetzan, **Euskadiko XLII. Eskolarteko Kirol Jokoak** antolatuko ditu 2025ko otsailaren 23an "El Refor"-eko instalakuntzetan, Amurrión (Araba).

I. Artikulua

Txapelketa honetan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako selekzioan dauden infantil mailako kirolariek hartu dezakete parte (2011 eta 2012ean jaiotakoak), hala nola, eskola kiroleko taldeak eta eskola kiroleko kanpainetan inskribatuta dauden elkarteak (3 talde lurralde historiko bakoitzeko, gizonen kategorian nahiz emakumezkoetan).

Partaide guztien eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

II. Artikulua

Lurralde-selekzioko talde bakoitzak, gehienez 6 kirolari aurkeztu ahal izango ditu. Bai gizonen kategorian, baita emakumezkoetan ere.

III. Artikulua

Ikastetxe edo elkarte bakoitzeko taldeek, gutxienez 4 eta 6 kirolari aurkeztu beharko ditu, bai gizonen kategorian bai emakumezkoetan ere.

IV. Artikulua

Ikastetxe bakoitzeko taldeek hurrengo araudia bete beharko dute:

- Taldea 6 kirolariz osatuta badago, gutxienez lauk ordezkatzeko duten ikastetxeetakoak izan beharko dute.
- Taldea 5 kirolariz osatuta badago, gutxienez hiruk ordezkatzeko duten ikastetxeetakoak izango dira.
- Taldea 4 kirolariz osatuta badago, gutxienez hiruk ordezkatzeko duten ikastetxeetakoak izan beharko dute.



V. Artikulua

Klubak derrigorrez, bertakoak diren kirolariz osatuta egon behar dira eta beraien lurralde historikoko eskola kiroleko programetan izena emanda egon behar dira.

Kategoria	Distantzia	Ordua	Epaileen deia	
Infantil neskak	2.900 m	11.00	Sarrera 10:45	Irteera 10:55
Infantil mutilak	2.900 m	11.20	Sarrera 11:05	Irteera 11:15

VI. Artikulua

Taldean sailkapena, edozein kategoriatan, lasterketa bakoitzetik eta talde bakoitzetik lehenengo lau kirolariak oinarritzat hartuta egingo da, talde bakoitzeko puntuazioa 4 kirolarien sailkapenen batura eginez. Bi talde edo gehiagoren artean berdinketa izan ezker, laugarren kirolariaren sailkapena kontuan hartuko da.

VII. Artikulua

Hurrengo lasterketak ospatuko dira, aurreikusitako gutxi gorabeherako luzera eta ordutegiaz.

VIII. Artikulua

Euskadiko Infantil Mailako Eskolarteko Kros Txapelketarako izen-emateak lurralde ezberdinetako Foru Aldundietako kirol zerbitzuetan egin beharko dira 2025ko otsailaren 15an, arratsaldeko 20:00ak baino lehen. Hauek Euskadiko Atletismo federaziora helarazi, otsailaren 17an arratsaldeko 14,00ak baino lehen. Frogaren egunean Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoa eta Kirolaren arduradunak baimendu ezean ezingo da aldaketarik egin.

OHARRA

Dorsalak froga egunean bertan, 2025ko otsailaren 23an, emango zaizkio zirkuituko idazkaritza nagusian talde edo selekzio arduradunari.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:



EUSKADIKO XLII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- a. 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen dizi-plinaraubideari buruzkoa
- d. AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 8koa, Jaurlearitzako Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e. Ebazpena, 2025eko otsailaren 4koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII edizioako lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- d. WA-k duen nazioarteko txapelketen araudia.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.